



Juan Mari Juaristi

Analista politikoa

Bejondeiala!

“Gaur, Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan batasuna lortzeko ahaleginak denok behar-tzen gaitu. Ni ere bai. Lidergo berrien trantsizio korapilatsuek duela lau urte sorrarazi zuen zatiketa irudia errepikatzeak EAJ-PNV modu garrantzitsuan ahuldu dezake.

Bizitzan, besteek zer egiten duten zain ez dela egon behar uste izan dut beti. Norberak eman behar ditu bidezkoak iruditzen zaizkion urratsak. Horregatik, hautagai ez izateko erabakiak, gure aukera politikoa batuko duen barne prozesua errazteko ekarpenari erantzuten dio.

Beste alderdi politikoengana-ko errespetu osoarekin, EAJ-PNVk, euskal politika batzeko eta baretzeko ardura duela uste dut, eta hori, zatiketa eta ahuldadearekin kaltetua atera daiteke. Beraz, herri ordezkartzan dagokigun kopurua eta ez gehiago kontuan harturik, eta epe motzeko jardueren ginetik, Eusko Alderdi Jeltzaleko zatiketa arriskuak euskal politikari ezegonkortasun eta erradikal-tasun neurriak areagotuko lizkioke” (Josu Jon Imaz).

Hori da beste esaldi sakon batzuen artean irailaren 12an EBBko presidente Josu Jon Imazek politika uzteko erabakiaren berri ematerakoan adierazitakoa.

Idea guztien artetik bat da nagusia; Eusko Alderdi Jeltzaleak azken lau urteetan eman duen zatiketa irudia konpontzea,



Idea guztien artetik **bat** da nagusia; **Eusko Alderdi Jeltzaleak** azken **lau** urteetan eman duen **zatiketa** irudia konpontzea

herritarrengandik urruntzen duen irudia eta estrategiarekin amaitzea, azken 30 urteotan Euskadiko norabide politiko, ekonomiko eta gainontzekoetan lidergoa eraman duen alderdiak, barne liskarrak medio odol husten jarrai ez dezan.

Eta helburu hori lortzeko, politikan batere ohikoa ez den pausoa eman du, politika utzi eta bere lehengo lanera itzultzea.

Egia da politikatik sarri askotan irudi penagarriak ez ezik gizarteko balore makurren isla ateratzen dela, baina oraingo kasuan bezala, muturretako gutxi batzuk kenduta, ia gizarte osoarengan eragina duten irudi onak ateratzen direla.

EBBko presidentearen keina errespetuz, mireshenez eta txaloz jaso izan da bai hemen eta hemendik kanpo ere bai. EAJ-PNVk ere azken hilabeteetan kanporatu dituen albiste txar askoren ondoren, aire garbia eta freskoa darion berria zabaldu dio gizarteari, bere presidentearen eskutik.

Batzuontzat beti oso goian egon den politikari handi baten irudia, oraindik eta gorago igo da. Bai bertako bai kanpokoen erreakzio ugari horiek, besteak beste Josu Jonek azken lau urte zail hauetan eraiki duen giza harreman sareari esker.

Izan ere, EAJ-PNVn betidanik ohikoa izan den jokabidea aurrera eraman du Zumarragako gizonak. Jakin badaki, Euskadik dituen arazo ugari aurre egiteko elkarrizketa dela tresnarik eraginkorrena, jakin badaki ezberdinen arteko gutxieneko adostasun puntuak bilatzea ezinbestekoa dela herri bezala aurrera egiteko, jakin badaki ezberdinen arteko zubi-lana egiteak onura gehiago dakartzala kalteak baino.

Eta elkarrizketaren bertuteak hitzetik ekintzetara eraman ditu. Bere alderdian ezberdin pentsa-

tzen zutenekin hasita, beste arerio politiko guztiekin aparteko harreman sarea eraikitzea lortu du.

2006ko udazkenean Loiola-ko Basilikan Alderdi sozialista eta Batasunarekin ehunka ordutako saioa egin zuen bakearen bila. Alderdi popularraren gehiegikeriak eta bere diskurtso erradikalaren arriskuaz ohartuta



*Ez da tamainako lana egitea erraza. Askotan **lan isila**, horregatik, hori guztia eduki eta **alderdiaren batasunagatik sakrifikatzeak izugarritzko meritua du***

zentzua sartzeko ahaleginetan jardun du.

Jaurlaritzako hiruko kideekin elkarrizketa berezia mantendu du. Baita Espainiako gobernu buruarekin eta Kataluniakoarekin ere. Europako Alderdi Demokratikoko lehendakariordea da (Romano Prodi da lehendakaria). Bruselan eta Estrasburgon pasatako bost urteak ez ziren alferrikakoak izan.

Enpresa munduan, Industria sailburu garaietatik landutako sarean preziatua eta estimatua izan da, bertako sare ekonomiko indartsuari gehigarriak ekartze-

ko gaitasuna duen horietakoa izan da politika uztera doan gizona.

Ez da hain denbora gutxian tamainako lana egitea erraza. Askotan lan isila, horregatik, hori guztia eduki eta Alderdiaren batasunagatik sakrifikatzeak izugarritzko meritua du.

Momentuz, ezberdinen arteko bizikidetzeta eta akordioak lortzeko saiakera zintzoak ez du nahi bezalako fruiturik eman, Zapatero presidenteari Nafarroako gobernuaren osaketaren ondorioz gogoratu zioen bezala.

Iribarre eta hitz goxoen atzetik abertzaleenganako errespetu eza erakusten duen jarduera izan delako jaso dena. Modan jarri den transbertsalitate hitzaren esanahian norbaitek sinisten badu EBBko presidentek sinesten du, ez dira sozialistak, nahiz askotan hitz horrekin ahoa bete, eredu horretan sinesten dutenak, oraindik Espainiaren nagusitasun erasokorrean eta ezberdin pentsatzen dugun abertzaleen bazterketan sinisten dutelako.

Bejondeiala, Josu Jon. Ea gizon, abertzale eta politiko handiaren erabaki eskuzabalak EAJ-PNVra batasuna eta indarra ekartzeko balio duen.

Duela lau urte hire hautagaitza proposatu genuenok damurik ez diagu egindakoaz, harro sentiarazteko keinuarekin agurtu dek oraingo ibilaldia. Denagatik, eskerrik asko abertzale. ■